



**June
Fernández**



KAZETARIA

Ahal dugu?

GIPUZKOAKO PODEMOS-AHAL DUGU elkarte politiko berriaren buru izateko hamabi hautagai zeuden: hamabiak gizon-ekoak. Gipuzkoakoa ez da salbuespena izan. Alegia, Espainiako Estatuko hamar hiri nagusienetak bitan bakarrik emakumezkoak izan dira Podemoseko buru izateko hautatuak. Paritate neurriek kritika bortitzak eta isekak jaso dituzte. Emakume askok diote ez dutela kuota huts izan nahi, baina sexismoak aukera berdintasuna oztopatzen duen neurrian, meritokrazia ez da bidezkoa, ezta egiazkoa ere. Ala pentsa behar dugu Podemosen ez dagoela lidergorako gaitasuna daukan emakumezko kide esanguratsurik?

Berdintasun legeak garatu ziren arte, gizonak ziren erakunde politikoetako jaun eta jabe (80ko hamarkadan, Eusko Legebiltzarreko %80 baino gehiago). Desoreka historikoak zuzentzeko neurri positiboak (esaterako, kremlera zerrendak) ezinbestekoak dira, baina ez dira nahiko. Errotik hasi behar dugu, zergatiak sakonki aztertu eta analisi horretatik abiatuta neurriak hartu. EUDELEk, esaterako, emakumeen gizarteratzean lidergo eta protagonismo jarrerak gizonen kasuan bezainbeste sustatu zen eta saritzen ez direla ikusita, 2012an Virginia Woolf Basqueskola ireki zuen; jendaurrean hitz egiteko tailerrez edota *coaching* saioez osatutako jabekuntza ekimena.

Traba latz batek kezkatzen nau: gizon politikariek boterearekiko daukaten atxikimendua. Paritatearen ondorioa jakin badakite: bi gizon zeuden lekuan, emakume bat sartzeko bietako batek postua utzi beharko du

Baina beste traba latz batek kezkatzen nau: gizon politikariek boterearekiko daukaten atxikimendua. Paritatearen ondorioa jakin badakite: bi gizon zeuden lekuan, emakume bat sartzeko bietako batek postua utzi beharko du. Emakumeen lehiakortasuna ekiditeko gizonak euren arteko korporatibismoz eta egune-

roko jarrera matxistez baliatzen dira. Halaber, egun ere leialtasun, aliantza eta erabaki politiko asko esparru ez formal maskulinoetan sukaldatzen dira: poteoan, futbol partidian... Hala saiatzen dira emakumezkoak politikan arrotzak diren sentipena mantentzen.

Pasa den abenduan Caracasen egon nintzen, Venezuelako Kultura Ministeriok antolatutako nazioarteko topaketa batetan, hain zuzen ere *Feminismoa, generoa eta boterea* izeneko mahai-inguru batean hitz egiteko gonbitarekin. “*Chávez no murió, se multiplicó*” bezalako leloen uneoroko presentziak “betiereko komandantea”ren (hala deitzen diote) itzalaren pisua adierazten zuen. Chávezek 2011n “iraultza sozialistak feminista izan behar du” esan zuen. Horrek eragin sinboliko izugarria izan zuen iritziz publikoak feminismoarekiko zuen jarreraren. Baina, hala ere, jardunaldi horietan gizonak izan ziren protagonistak, giza eskubideak edo kezka ekologistak edozein mahai-ingurutan aipatzen ziren, eta aldiz, emakumeen eskubideen aldeko hitzak ekimen feministetara baino ez ziren mugatu. Hau da, zeharkako apustu feminista ez zen inondik inora ageri.

Chávez baino lehenago Zapaterok ere feminismoa aldarrikatu zuen, eta orain dela gutxi Podemoseko Juan Carlos Monederok ere bere burua feminista izendatu du (Madrilgo feministei galdetu zer iruditzen zaien Monedero). Esanguratsua da lider politiko batek feminismoarekiko atxikimendua adieraztea. Baina gizon ezker-tiar askok ikur feministak astintzen dituzte euren pribilegio eta botere patriarkalera tinko oratuak dirauten bitartean. Apustu sinbolikoa onuragarria da neurri koherenteen bidez gauzatzen bada, bestela keinu hipokrita hutsa da.

Tamalez, Podemos bezalako ezkerreko elkarte politikoetan patriarkatuaren osasun onarekin topo egiten dudanean, 15-M mugimenduaren leloa –PP eta PSOERI zuzendutako samintasunez gogoratzen dut: “Ez, ez, ez naute ordezkatzeko”. ■

